

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa aurrera eramateko egingo ditugun ekintzak hurrengoak izango dira;

1-Baliabideak lortu eta antolatu.

Honetarako egongo gara bilatzen erabiliko ditugun baliabide guztiak; bizikletak, kaskoak, txirrinak, argiak esaterako.

2-Gure proiektua jorratzeko baliabide nahiko izango ditugunean, txangoak planifikatzea izango da hurrengo jarduera. Hau izango da planifikatutako txangoa:

Lehenengo eguna: GASTEIZ, MURGIA, ORDUÑA eta LAUDIO

Bigarren eguna: BILBO, SOPELA, BAKIO eta MUNDAKA

Hirugarren eguna: GERNIKA, LEKEITIO, ONDARROA eta DEBA

Laugarren eguna: ZUMAIA, ZARAUTZ eta DONOSTIA

Bostgarren eguna: TOLOSA, ORDIZIA eta LEGAZPI

Seigarren eguna: OÑATI, BERGARA eta ESKORIATZA

Zazpigarren eguna: ULIBARRI eta GASTEIZ

3-Txangoa planifikatuta izatean, non lo egin ikusi beharko dugu. Horretarako egun bakoitzeko amaierako helmugan aterpetxe edo landaetxe bat bilatu beharko dugu, beti ere gure bezeroen eskaerei moldatuta. Hauek izango dira egun bakoitzeko helmugak eta hortaz, lo egiteko guneak:

→LAUDIO, MUNDAKA, DEBA, DONOSTIA, LEGAZPI eta ESKORIATZA

4-Gure ibilbidea guztiz planifikatuta izango dugunean langileak bilatu beharko ditugu, monitore lana egiteko konkretuegi. Horretarako, lan-eskaintza aplikazioetan aurkeztuko gara eta lanbide edo mota horretako esparruekin lan egingo dugu.

5-Gure enpresa guztiz bukatuta egon dadin, esparru askotara hedatuko gara eta, gure gizartea interkonektatuta dagoenez, horretaz baliatuko gara eta sare sozialetan eta hedabideetan iragarriko dugu gure enpresa, bezero gehiago izateko asmoarekin. Honez gain, beste ekintza digital batzuk egingo ditugu:

- **Turismoaren sustapena:** Euskal Herriko hiri, herri eta paisai paregabeak nabarmenduko dituzten marketin kanpainak sortuko ditugu
- **Plataforma digitala:** Web orria eta sare sozialetan presentzia mantenduko dugu.
- **Tokiko kolaborazioak:** Hotel eta jatetxe askorekin elkartuko gara, batez ere, gure txangoko bidean bat egiten duten lekuekin.